

Udal Osoko Bilkurak, bi mila eta hamabosteko azaroaren hamahiruan egindako bilkuran, hauxe erabaki zuen:

LEHENENGOA: Hasierako onespena ematea ondoko Tributu eta Prezio Publiko hauen Ordenantza arauemaileen aldaketari:

TASAK, ZERBITZU PUBLIKOAK EMATEAGATIK ETA ADMINISTRAZIO-JARDUERAK EGI-TEAGATIK.

- Tasak, Musika Eskolan ematen diren klaseeenak.

- "Familia-unitate" kontzeptua aldatzea eta honen orde: "Familia-unitatetzat ulertzen da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren 100. artikulua esaten duena."

Hauxe esan behar du: *"Familia-unitate bakarra osatzen dute legez bananduta ez dauden ezkontideek, izateko bikoteen kideek eta, baleude, jarraian aipatzen diren hauek: Seme eta alaba adingabeek, gurasoen baimenarekin etxetik aparte bizi direnak izan ezik.*

b) Seme eta alaba ezkongabeek, 25 urtetik beherakoek.

c) Epai-aginduz ezgaituak eta guraso-ahala luzatu edo birgaituaren menpekoak diren seme-alaba edadez nagusiek."

- Tasa, bidaiarien herri barruko garraio zerbitzuagatik. Tarifa hauek jasotzea.

TAXIBUSAREN TARIFA BAKARRA. 0,65 €

UDALBUSAREN TARIFAK MUGI TXARTELIK GABE.

NOIZBEHINKA (PAPERIZKO TXARTELA) 1,20 €

Umeak (5 urte arte). 0,00 €

UDALBUSAREN TARIFAK MUGI TXARTELAREKIN.

OROKORRA.

1. BIDE-ZATIA. OHIKOA. 1ETIK 20RA BIDAIA	0,66 €
2. BIDE-ZATIA. OHIKOA. 21ETIK 50ERA BIDAIA	,0,53 €
3. BIDE-ZATIA. OHIKOA. 51 BIDAIA EDO GEHIAGO.	0,12 €

FAMILIA UGARIA. OROKORRA.

1. BIDE-ZATIA. OHIKOA. 1ETIK 20RA BIDAIA	,0,53 €
2. BIDE-ZATIA. OHIKOA. 21ETIK 50ERA BIDAIA	0,42 €
3. BIDE-ZATIA. OHIKOA. 51 BIDAIA EDO GEHIAGO.	0,10 €

FAMILIA UGARIA. BEREZIA.

1. BIDE-ZATIA. OHIKOA. 1ETIK 20RA BIDAIA	,0,33 €
2. BIDE-ZATIA. OHIKOA. 21ETIK 50ERA BIDAIA	0,27 €
3. BIDE-ZATIA. OHIKOA. 51 BIDAIA EDO GEHIAGO.	0,06 €

GAZTEAK.

1. BIDE-ZATIA. OHIKOA. 1ETIK 20RA BIDAIA	0,58 €
2. BIDE-ZATIA. OHIKOA. 21ETIK 50ERA BIDAIA	0,47 €
3. BIDE-ZATIA. OHIKOA. 51 BIDAIA EDO GEHIAGO.	0,11 €

NAGUSIAK

1. BIDE-ZATIA. OHIKOA. 1ETIK 20RA BIDAIA	,0,32 €
2. BIDE-ZATIA. OHIKOA. 21ETIK 50ERA BIDAIA	0,25 €
3. BIDE-ZATIA. OHIKOA. 51 BIDAIA EDO GEHIAGO.	0,06 €

DESGAITUAK.

1. BIDE-ZATIA. OHIKOA. 1ETIK 20RA BIDAIA	,0,32 €
2. BIDE-ZATIA. OHIKOA. 21ETIK 50ERA BIDAIA	0,25 €
3. BIDE-ZATIA. OHIKOA. 51 BIDAIA EDO GEHIAGO.	0,06 €

GIZARTE-TXARTELA.

1. BIDE-ZATIA. OHIKOA. 1ETIK 20RA BIDAIA	,0,32 €
2. BIDE-ZATIA. OHIKOA. 21ETIK 50ERA BIDAIA	0,25 €
3. BIDE-ZATIA. OHIKOA. 51 BIDAIA EDO GEHIAGO.	0,06 €

Tarifa hauek 2016ko apirilaren 1etik aurrera aplikatuko dira.

Aparteko errekgua.

Sarreran kontrolatutako edo behar bezala balioztutako garraio-titulurik ez duten bidaiariak behartuta egongo dira tiketa eroatera, 50 euroko tarifa-izaerako aparteko errekgua ordainduta egindako ibilbidearen truke edo egin nahi dutenaren truke.

Kopuru hori lau lanegunen barruan ordaindu ahal izango da edo berehala. Berehala ordainduz gero, aparteko errekguaren zenbatekoa 20 eurora murriztuko da.

PREZIO PUBLIKOAK, ZERBITZUAK ESKAINTZEAGATIK EDO UDAL JARDUERAK EGI-TEAGATIK.

Coliseo Antzokiko prezioak eta Udalak Ipuruako Kiroldetxean eta Astelena Frontoian antolatzen dituen ikuskizunenak.

COLISEOKO ARETOAK ALOKATZEA atalean haxe jasoko da:

“Herriaren intereseko Elkarleen Erregistroan inskribatutako diru irabazi asmorik gabeko Elkar-teei kobratuko zaien alokairua: 300 euro eguneko.”

ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA. 14. artikuluko 4. atalaren 13. apartatua aldatzea, horrela, noizean behin erabiltzen den etxebizitzat hartzeko, zerga sortzapenaren aurreko urtean 5 m³-ko gutxienezko ur kontsumoa egin dela egiaztatzeko, 5 m³ horien ordean 8 m³ izan daitezkeen egiaztatu beharrekoak.

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA.

- Hobari hau sartzea: *“Ondorengo baldintza hauetako bat betetzen duten ibilgailuek % 75eko hobaria izango dute:*

Motor elektrikoko ibilgailuek edo ibilgailu hibridoek (ibilgailu elektriko-gasolina, elektriko-diesel edo elektriko-gas), fabrikatik homologatutakoak, beren mota eta modelorako gailu katalizatzaile egokiak dituztenak eta emisio kutsakorrak gutxitzen dituztenak.

2) Fabrikako homologazioaren arabera erregai gisa gasa erabiltzen duten ibilgailuek eta gailu katalizatzaileak dituztenek, beren mota eta modelorako egokiak, eta emisio kutsakorrak gutxitzen dituztenak.”

- Ibilgailu historikoen hobaria aldatzea. Beraz, oraingo testu honen ordean:

“Zergaren kuotan % 100eko hobaria izango dute Trafikoko Lurralde Zuzendaritzan historikotzat matrikulatuta agertzen diren ibilgailu edo autoek eta gutxienez hogeita bost urte dituztenek, fabrikatu zirenetik kontatzen hasita edo, data hori ezagutu ezean, lehenengo aldiz matrikulatu zireneko data kontuan hartuta edo, horrelakorik ezean, ibilgailu edo auto-mota hori fabrikatzeari utzi zitzaionekoa.

Hobari-eskaerak Udaleko PEGORA bulegoan aurkeztu behar dira, ibilgailuaren zirkulazio-

baimenaren fotokopia ekarrita.

Hobari-eskaerak ordainketako borondatezko ordainaldian aurkeztuko dira edo, bestela, borondatezko ordainaldiaren epea amaitu eta hurrengo egunetik zenbatuta, hile bateko epean.”

Ondorengo hau jasoko du:

“Zergaren kuotan % 100erainoko hobaria izango dute Trafikoko Lurralde Zuzendaritzan historikotzat matrikulatuta agertzen diren ibilgailu edo autoek.”

BIGARRENA: Aurreko atal horietan adierazitako erabaki horiek, erabakioi dagozkien Ordenantzak eta horren inguruan abian jarritako espedienteak jendaurrean uztea 30 laneguneko epe batean, nahi diren erreklamazioak aurkez daitezzen.

Jendaurrean edukitzeko legez dagoen epe hori igaroz gero erreklamaziorik ez balego, beste inolako erabakirik hartzeke, lehen esandako erabaki guzti horiek irmo bilakatuko dira.”